

## 8. Beste urtebete bat Arabako Iruñako ostrakak argitzen

2011ko maiatzetik 2012ko apirilera

### Arabako Iruña Argitzeko Batzordea



#### Xingola bat Bibat Museotik Justizia Jauregiraino

2011ko ekainaren 4an xingola batekin lotu genituen Bibat Museoa, Aldundia eta Justizia jauregia, ostraken datazioen atzerapena salatzeko.

2010eko uztailean Epaileak datazioak egitea onartu bazuen ere, epe horretan, eta gaur egun ere, egin gabe zeuden.

Ekimen hau SOS Iruña Veleiaren eta Arabako Iruña Argitzeko Batzordearen artean antolatu genuen.

Bideoa:

<http://www.youtube.com/watch?v=1CaiVRIPwQU>

Argazkiak <http://www.sos-irunaveleia.org>,

<http://www.sos-irunaveleia.org/start#MERCADO>

<http://euskararenjatorria.net/?p=1022>



#### Nuñezen obrak gelditzeko kalejira

Ekainaren 25ean, Billodasko zubitik indusketaren ateraino kalejira egin genuen, Nuñezen obrak gelditu daitezela eskatzeko. Izan ere, aurreko urtean hondeamakina sartuta kriston triskantzara egin zuten.

Ekimen hau ere SOS Iruña Veleiaren eta Arabako Iruña Argitzeko Batzordearen artean antolatu genuen.



#### Iritzi artikulua datazioen onarpenaren urteurrenean

2011ko uztailean Arabako Iruña Argitzeko Batzordearen eta SOS Iruña Veleiaren artean iritzi publikoari gutun ireki bat zuzendu genion esanez, Epaileak ostraken datazioak onartu zuenetik urte bete pasa ondoren eginda ez egotea guztiz salagarria zela eta defentsa gabe erabat uzten zituztela salatutako Lurmen enpresakoak.

Epaileari datazioak egin ditzan eskatu genuen.



**EUSKALTZAINDIA**

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA  
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

## Euskaltzaindia beste aldera begira

2011ko martxoan Euskararen Jatorriak idazki bat zuzendu zion Euskaltzaindiari gai hau argitzen lagundu zezan. Ostrakak egiazkoak izan daitezkeela dioten 18 txostenak ez zituztenez (gutxi batzuk eta CD formatuan, irakurri gabe) denak inprimatu eta bertara eraman genizkien.

Egun berean, irakurtzeko astirik gabe, gai hau “arkeologikoa” dela eta ez dagokiela erantzun ziguten.

Irailean iritzi artikulu batean jarrera hau gogor salatu genuen: [Bloga](#), [Erabili](#), [Berria](#), [Sustatu](#)



## CSI, Iruña Veleia eta Unibertsitateak

Arabako Aldundiak ostrakak faltsuak zirela esan zuenetik 3. urteurrena betetzean, 2011ko azaroan, iritzi artikulu bat idatzi genuen CSIn ikusten den ikerketa kriminologiko sakonaren eta hemen egin den sasikerketaren arteko alderaketa eginez: dataziorik ez, kata kontrolaturik ez, aholkulari bat ere indusketan eta arkeologoei galdezka, arkeometria esistituko ez balitz bezala jokatzeari...

Gainera epaileak datazioak onartu eta nor eta behar den tresneriarik ez dutenei eskatzea epeak izugarri luzatuz eta egin gabe. Oihartzuna izan zuen:

[Berrian](#), [Erabili](#), [Noticias de Alava](#), [Bloga](#)



## Datazioen hamaikagarren eskaera

3. urteurrenean ere Jatorria Elkartearen Arabako Iruña Argitzeko Batzordeak 4 gauza eskatu zizkion, berriz ere, Aldundiari:

- Ostraka polemikoenak datatzea
- Publikoari ostrakak ikusteko aukera ematea
- Sektore oso bat hondatzeagatik Julio Nuñez indusketako zuzendari gisa kentzea eta
- Gai polemiko hau argitu arte indusketa eremua ixtea



### Ertzaintzak ezin ditu datazioak egin

Azaroaren 30ean prentsa ohar bat zabaldu genuen, Epaileak Ertzaintzari datazioak egiteko agindua bidali ziolako. Agirian argi esaten genuen arkeometria laborategietan baino ezin dutela lan hori egin.

[Diario de Noticias](#) [Gara](#)



### Txillardegia jator jatorriarekin

Txillardegiri ostraken polemikan izandako zuhurtzia, ikertzeko gogoia, adimena, irekitasuna eta Unibertsitateak dionari beldurrik ez izateagatik gure eskertze gutuna urtarilaren amaieran argitaratu zen hainbat mediotan:

[Erabili](#), [Sustatu](#), [Berria](#), [Gara](#)

### Munduko 86 arkeologia fakultateetarako gutuna



Apirilean Arkeologia Fakultatea duten mundu osoko 86 unibertsitateetara gutun bana bidali dugu, historia triste hau kontatzeko. 9 orrialdeko laburpen honetan prozesu osoaren laburpena dago: ostraken aurkikuntza, Aldundiaren txostenak, beste 19 kontratxosten, datazioak onartu baina egin ez izana, arkeometria hemen aipatu ere ez dutela egin...

Laburpena ingelesez, gazteleraz eta euskaraz dago

[Suntsiketa arkeologikoa Arabako Iruñan](#)

### Berripapera: 5 ale azken urte honetan

Aurreko biltzarretik hona Arabako Iruña Argitzeko Batzordeak 5 berripaper egin ditu gai nagusiak landuz. Horiek Arabako Batzar Nagusietako alderdiei, Kultura Diputatuari, Iruña-Okako Udalari, eta beste 20 bat erakunderi bidaltzen zaie.

	<b>Arabako Iruña Argitzeko Batzordearen berripapera</b>	
	2011ko azaroaren 19an 15. alea	
Iruña Veleia, CSI eta munduko arkeologia fakultateak		Iruña Veleia, el CSI y las facultades de arqueología del mundo
Gutxi jakingo dute CSIko ikertzaile nagusia, Gil Grissom, hau da, Wiliam Petersen aktorea, Arrasaten bizi izan zela gure antzinako kultura		Pocos sabrán que el investigador por excelencia del CSI, Gil Grissom, es decir, el actor Wiliam Petersen estuvo viviendo en Arrasate ya que vino



## ***Euskararen mina***

Lortu duzue,  
Iruña Okan ez da deus,  
haizeak bultzatutako belar hutsen zelaia baino ez.

Adio euskara zaharra ikertzeari,  
adio gure arbasoen bizitza ezagutzeari,  
Euskal Filologiaren Inkisizioak dena eraman du aurretik.

Hondeamakinak ondo egin du lan,  
harlauzetatik gorako guztia erausiz,  
Aldundiak esandakoari arrazoia emanez, ezin da agertu horrelako ostrakarik.

Datazioak debekatu,  
kata kontrolatuak debekatu,  
euskararen aurkikuntza handiena egin dutenak kanporatu.

Mina dugu,  
min sakona,  
baina ez dizuegu zapalketa hau onartuko, ez,  
are gutxiago euskararen izenean.

*Arabako Iruña Argitzeko Batzordea (Euskararen Jatorria)*

